

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan elementu garrantzitsu batzuk eduki behar ditu. Funtsezko elementuak direla enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Guk gure proiektua garatzeko hainbat baliabide behar ditugu horien artean baliabide fisikoak. Gure produktuak ekoizteko, lanerako toki aproposa behar dugu, handia eta argitsua. Handia izan behar du gure produktu guztiak gorde ahal izateko eta galtzak ekoizteko behar ditugun makina guztiak sartzeko. Bestalde, lehen esan bezala, galtzak ekoizteko makinak ere behar ditugu, josteko makina erraldoiak adibidez.

Gure proiektua garatzeko momentuan oso garrantzitsua da baliabide intelektual bat edukitzea. Gure galtza bereziak egin baino lehenagotik, informazioa jaso genuen. Lehenik eta behin gazteen artean inkesta batzuk banatu genituen, telefono lapurtuen arazoa benetan gazteen artean arazo handi bat dela konfirmatzeko. Telefono lapurtu gehienak poltsikoetatik lapurtuak izan ohi dira, beraz, telez eta galtza jostuz informazioa jaso dugu, diseinatzeko momentuan arazorik ez egoteko.

Giza baliabideak: Jakina da langileak beharko ditugula gure proiektua gauzatzeko. Gutxienez hamar jostun behar ditugu, galtzen poltsikoak joritzeaz enkargatuko direnak. Galtzak paketatzeko beste hiru lau pertsona beharko ditugu. Produktua gauzatzearen lehen asteetan publizitateaz eta promozioaz enkargatzeko bi pertsonekin nahikoa dugu. Ekonomiaz eta kontuez arduratuko den beste pertsona bat.

*Levis* enpresarekin eta beste enpresekin harremanak eramango dituen beste pertsona bat eta azkenik dendaren edo enpresaren garbiketez enkargatuko den bat.

Azkenik, finantza baliabideak behar ditugu, gure proiektuarekin hasi ahal izateko diru kopuru jakin bat beharko dugu, horretarako banketxera joan eta kreditu bat eskatuko dugu. Mozkinak edukitzen hasten garenean, kreditu hori ordaintzen joango gara eta ekoizpen gastuak ordaintzen, kostu finko eta aldakor guztiak ordainduko ditugu lortutako diruarekin.

